

**DURANGO**

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría


### **Toki Gobernu Batzordearen konstituzioa**

Alkateak, 2019ko ekainaren 27ko Dekretuaren bidez, hauxe erabaki du:

*"Toki araubidea arautzen duten, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 23. artikulua ematen didan eskumena erabiliz, alegia, arautu egiten dituen oinarriak eta gaurko egunean eguneratuta eta indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, eta, 1986ko azaroaren 28ko, toki entitateen antolakuntza eta jarduera-araudiaren 52. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz,*

#### **ERABAKI DUT**

1. *Udal honetako **TOKI GOBERNU BATZORDEA** eratzeko espedientea abiaraztea.*
2. ***TOKI GOBERNU BATZORDEA**, alkatea delarik buru, udalbatzako zinegotzi-kopuruaren herena baino txikiagoa izango da, eta zinegotzi hauek osatuko dute:*
  - *Alkatesa, Ima Garrastatxu Urbaneja Andrea.*
  - *1. Alkateordea, Julian Ros Santiago Jauna.*
  - *2. Alkateordea, Iker Urkiza Quilez Jauna.*
  - *3. Alkateordea, Aritz Bravo Zubillaga Jauna.*
  - *Ane Abanzabalegi Areitio Andrea.*
  - *Mariam Bilbatua Perez Andrea.*
  - *Neskutz Rodriguez Ormazabal Andrea.*
  - *Jorge Varela Dorrio Jauna.*
3. *Alkatetzaren ondorengo eskumen hauek delegatzen dizkiot Toki Gobernu Batzordeari:*
  - 1) *Lan Eskaintza Publikoa onartzea, udalbatzak onarturiko aurrekontuarekin eta langileen plantilarekin bat etorriz.*
  - 2) *Lan Eskaintza Publikotik eratortzen diren deialdiak egitea.*
  - 3) *Udalbatzako langileak saritzea eta zigortzea, salbu eta langileen zigorra zerbitzutik apartatzea edo botatzea bada.*
  - 4) *360.000,00 eurotik gorako era guztietako kontratazioak edo emakidak egitea obra-kontratuetan, eta 120.000,00 eurotako zerbitzu-kontratuetan.*
  - 5) *360.000,00 eurotik gorako obra eta zerbitzu proiektuen onarpena, betiere, udal aurrekontuetan aurreikusita badaude.*
  - 6) *Eraispen-espedienteei buruzko akordioak hartzea.*
  - 7) *Euskadiko Batzorde Juridikoak txostena egin behar duen espedienteen gaineko on-dare-erantzukizuna.*



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

4. Toki Gobernu Batzordeari delegaturiko eskumenen zehaztasunak eta mugak delegazio honen baitan biltzen dira, eta ezingo dira beste organo bati delegatu.

*Toki Gobernu Batzordeak onartutako akordioen testuan, espresuki, adierazi behar da goian aipaturiko gorabehera hori, eta, holaxe, testu hau erantsiko zaio ebazpenari:*

*“Kontuan izanda Toki Gobernu Batzordeari dagokiola akordio hau hartzea, 2019ko ekainaren 27ko alkate-dekretu bidez onaturiko delegazioak aintzat hartuta”*

5. Azaroaren 28ko, 2568/1986 Errege Dekretuak onaturiko toki entitateen antolakuntza eta jarduera-araudiaren 51.2. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, delegazio hauek indarrean sartuko dira akordio hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen kaltetan izan gabe, eta izaera mugagabea izango dute.
6. TOKI GOBERNU BATZORDEA datorren astelehenean bilduko da, uztailaren 8an, 17:30etan, toki entitateen antolakuntza eta jarduera-araudiaren 112.1 artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz.
7. TOKI GOBERNU BATZORDEA astero batzartuko da (AJAren 112.3 artikulua), abuztuan izan ezik, EGUN BALIOGABEA delako holakoetarako.
8. Ebazpen honen berri emango zaio osoko bilkurari organo hau biltzen den lehengo egunean. Halaber, jakinarazpen pertsonala egingo zaie izendatutakoei, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, betiere, ebazpenaren eragingarritasunaren kaltetan izan gabe, hau da, ebazpena onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, halaxe ezartzen baitute, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 23.1 eta 52.4 artikuluek, azaroaren 28ko, antolakuntza eta jarduera-araudiaren 46. artikulua inguruan."

Durango, 2019ko uztailaren 3an.

[http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2019/07/11/II-2618\\_eus.](http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2019/07/11/II-2618_eus.)